EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
IRTEERA - SALIDA
2011 API. ABR. 20
Nº 14977 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA**
**COMISIÓN DE ECONOMÍA, HACIENDA Y PRESUPUESTOS**

NIK, SUSANA CORCUERA LEUNDAK, EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEKO IDAZKARI NAIZEN HONEK,

ZIURTATZEN DUT

Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordek, 2011ko apirilaren 20an, behean adierazten den erabakia hartu du honako gai honi buruz: Europako Parlamentuak eta Kontseiluak merkantzien errepide-garraioen zerrenda estatistikoari buruz egindako erregelamendu-proposamena.

"1. Proposamena Europar Batasuneko Batzorde Mistoko Idazkaritzak bidali zion Legebiltzar honi, subsidiariotasun-printzipioaren betekuntza egiaztatze aldera, 'alerta azkarra' izeneko prozeduraren bitartez. Proposamenaren tramitazioa Lehendakaritzaren 2009ko abenduaren 9ko ebazpen orokorrean aurreikusitakoari jarraituta burutu da.

2. Ekonomia eta Ogasun Sailak batzordeari txosten bat helarazi zion apirilaren 5ean, non ondorengoa esaten den: 'Subsidiariotasunaren azterketari dagokionez funtsezko objekziorik egin behar ez den arren, bai esan behar da arretaz aztertu behar direla proposamenaren termino zehatzek gure erakundeetan, batzar nagusietan eta foru-aldundietan izan ditzaketen ondoreak, bai eskumenei dagozkienak bai eta diru-bilketari dagozkienak ere, orain arte ez dutela zerikusirik izan proposamenaren formulazio zehatza eragin duen prozesuan.

   Batzar nagusiek eta foru-aldundiek arauak ezarri eta ordainarazteko berezko gaitasuna dute sozietateen gaineko zertan'.

3. Ezarritako epearen barruan, Euzko Abertzaleak taldeak zenbait ohartarazpen egin ditu.

4. Aipatutako egitate horiek oinarri hartuta, batzordeak, 2011ko apirilaren 20an

SUSANA CORCUERA LEUNDA, SECRETARIA DE LA COMISIÓN DE ECONOMÍA, HACIENDA Y PRESUPUESTOS

CERTIFICO

Que la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos, en sesión celebrada el día 20 de abril de 2011, ha acordado, en relación con la propuesta de directiva del Consejo relativa a una base imponible consolidada común del impuesto sobre sociedades, lo siguiente:

"1. La propuesta ha sido enviada a este Parlamento por la Secretaría de la Comisión Mixta de la Unión Europea en orden a la verificación del cumplimiento del principio de subsidiaridad mediante el procedimiento conocido como 'alerta rápida'. La tramitación se ha efectuado de conformidad con lo previsto en la resolución general de la Presidencia de 9 de diciembre de 2009.

2. El Departamento de Economía y Hacienda ha remitido el 5 de abril a la comisión un informe en el que realiza la siguiente consideración: 'Si bien no cabe realizar una objeción de fondo en cuanto al análisis de subsidiaridad, sí puede afirmarse que los términos concretos de la propuesta han de ser objeto de un cuidadoso análisis de los efectos, tanto competenciales como recaudatorios, que pueden derivarse para nuestras Instituciones, Juntas Generales y Diputaciones Forales, que hasta la fecha han sido ajenas al proceso que ha desembocado en la formulación concreta de la propuesta.

   Las Juntas Generales y las Diputaciones Forales disponen de capacidad normativa y exaccionadora propias en el Impuesto sobre Sociedades'.

3. Dentro del plazo establecido, se han formulado observaciones por parte del grupo Nacionalistas Vascos.

4. Con base en los hechos anteriormente referidos, la comisión, en la sesión de fecha

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org

egindako bileran, honako erabaki hau hartu du:

1. Batzordea direktiba-proposamenaren jakitun geratu da, eta adierazi du ez duela hauteman inolako oinarri edo ziorik justifikatzeko ez dela egokitzen subsidiariotasun-printzipiora.

2. Hala ere, batzorde honek ondoko hausnarketak helarazten dizkie Gorte Nagusiei.

   a. Subsidiariotasunaren azterketari dagokionez funtsezko objekziorik egin behar ez den arren, bai esan behar da arretaz aztertu behar direla proposamenaren termino zehatzek gure erakundeetan, batzar nagusietan eta foru-aldundietan izan ditzaketen ondoreak, bai eskumenei dagozkienak bai eta diru-bilketari dagozkienak ere, orain arte ez dutela zerikusirik izan proposamenaren formulazio zehatza eragin duen prozesuan.

   b. Batzar nagusiek eta foru-aldundiek arauak ezarri eta ordainarazteko berezko gaitasuna dute sozietateen gaineko zertan

   c. Direktiba-proposamenak eragin handia du SozietateenZergaren alorrean indarrean dagoen zerga-eskumenen banaketan.

   d. Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskadiko Itun Ekonomikoa onartzen duenak, lurralde historikoetako erakundeei aitortzen die (batzar nagusiei eta foru-diputazioei) Sozietateen Zergaren gaineko araugintza- eta egikaritze-eskumena, gai horri buruzkoa baita aipatutako directiva eta gai horri eragiten baitio.

20 de abril de 2011, ha adoptado el siguiente acuerdo:

1. La comisión toma conocimiento de la propuesta de directiva, sin que le conste fundamento o motivo alguno en el que pueda justificarse su no adecuación al principio de subsidiaridad.

2. No obstante esta comisión traslada a las Cortes Generales las siguientes consideraciones:

   a. Si bien no cabe realizar una objeción de fondo en cuanto al análisis de subsidiaridad, sí puede afirmarse que los términos concretos de la propuesta han de ser objeto de un cuidadoso análisis de los efectos, tanto competenciales como recaudatorios, que pueden derivarse para nuestras Instituciones, Juntas Generales y Diputaciones Forales, que hasta la fecha han sido ajenas al proceso que ha desembocado en la formulación concreta de la propuesta.

   b. Las Juntas Generales y las Diputaciones Forales disponen de capacidad normativa y exaccionadora propias en el Impuesto sobre Sociedades

   c. La propuesta de directiva tiene un efecto importante, sobre el reparto competencial tributario vigente, en materia de Impuesto de Sociedades

   d. La Ley 12/2002, de 23 de mayo por la que se aprueba el Concierto Económico de Euskadi, reconoce a las instituciones de los territorios históricos (Juntas Generales y Diputaciones Forales) competencia normativa y de ejecución sobre el Impuesto de Sociedades, materia sobre la que versa y afecta la directiva

indicada.

e. Bermatu beharra dago lurralde historikoetako erakundeek era aktiboan parte hartzea Europar Batasuneko erakundeek egindako direktiba prestatzeko prozesuan, estatu-ordezkaritzaren barruan, Estatuaren borondatea taxutzen eta finkatzen".

e. Procede que se garantice que las instituciones de los territorios históricos, participen activamente en la conformación y fijación de la voluntad del Estado, en el seno de la delegación estatal, en el proceso de elaboración de la directiva elaborada por las instituciones de la Unión Europea".

Eta horrela jasota geratzeko, ziurtagiri hau egiten dut batzordeko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2011ko apirilaren 20an.

Y para que así conste, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2011.

**Ontzat emana**
**BATZORDEKO LEHENDAKARIA**
**Visto bueno**
**LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN**

**Leire Corrales Goti**

**BATZORDEKO IDAZKARIA**
**LA SECRETARIA DE LA COMISIÓN**

**Susana Corcuera Leunda**

Becerro de Bengoa • 01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 00 40 00 • Fax: 945 13 54 06 • www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org